



**Haurren Eskubideei
buruzko Konbentzioa**

Bana.
OROKORRA

CRC/C/OPSC/ESP/CO/1
2007ko urriak 17

GAZTELANIA
Jatorrizkoa: INGELESA

HAURREN ESKUBIDEEN BATZORDEA
46. bilera-aldia

**HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOAREN AUKERAKO
PROTOKOLOKO 12. ARTIKULUKO 1. PARAGRAFOAREN ARABERA
ESTATU KIDEEK AURKEZTUTAKO TXOSTENEN AZTERKETA HAURREN
SALMENTARI, HAURREN PROSTITUZIOARI ETA HAURRAK
PORNOGRAFIAN ERABILTZEARI DAGOKIONEZ**

Azken oharpenak

ESPAINIA

1. Batzordeak Espainiako hasierako txostena (CRC/OPSC/ESP/1) aztertu zuen bere 1277. bileran (ikus CRC/C/SR.1277), 2007ko urriaren 1ean egindakoan, eta 1284. bileran, 2007ko urriaren 5ean egindakoan, honako azken oharpen hauek onartu zituen.

A. Sarrera

2. Batzordeak begi onez hartu zuen Estatu Kidearen hasierako txostena, atzerapenez kexatu den arren. Batzordeak aitortzen du goi-mailako sektore anitzeko ordezkari batekin izandako elkarriketa konstruktiboa.

3. Batzordeak Estatu Kideari gogorarazi dio azken oharpen horiek Estatu Kidearen aldizkako bigarren txostenari buruz 2002ko ekainaren 4ean (CRC/C/15/Add.185) onartutako azken oharpenekin batera eta hurrek gatazka armatuetan parte hartzei buruzko Aukerako Protokoloaren inguruan aurkeztutako hasierako txostenari buruz (CRC/C/OPAC/ESP/CO/1) 2007ko urriaren 5ean onartutako azken oharpenekin batera irakurri beharko liratekeela.

I. ILDO OROKORRAK

a. Alderdi positiboak

4. Batzordeak aitopenez ikusi du:
 - a) Giza eskubideen nazioarteko itunek nazioko legeriaren parte izan behar dutela eta auzitegi nazionalak aplikatu ahal izan behar dituztela.
 - b) 2004ko Zigor Kodea zuzendu dela pornografian haurrak erabiltzeko debekuari buruzko xedapenak sartuta;
 - c) Haurren sexu-ustiapenaren aurkako Ekintza Plan Nazionala onartu dela 2001-2005 aldirako eta, 2006-2009 aldirako bigarren Ekintza Plan Nazionala onartuta, hura luzatzea erabaki dela.
5. Estatu Kidea Aukerako Protokoloarekin zerikusia duten nazioarteko tresnei atxikitzea edo tresna horiek berrestea ere goستن du Batzordeak. Honako hauek dira tresnak:
 - a) Haurren 1999ko lan-mota okerrenei buruzko LANERen hitzarmena (182. hitzarmena), 2001eko apirilaren 2koa;
 - b) Pertsonen salerosketa eta, bereziki, emakume eta hurrena prebenitu, zigortu eta zehatzeko Protokoloa, 2002ko martxoaren 1eko Delinkuentzia Transnazional Antolatuen aurkako Nazio Batuen Konbentzioa osatzen duena;
 - c) Hurrek gatazka armatuetan parte hartzeari buruzko Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioko Aukerako Protokoloa, 2002ko martxoaren 8koa.

B. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioko printzipio orokorrak (2., 3., 6. eta 12. artikulua)

6. Batzordearen kezka da Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioko printzipio orokorrak ez direla behar beste kontuan hartu haurren salmentari, haurren prostituzioari eta pornografian haurrak erabiltzeari buruzko Konbentzioko Aukerako Protokoloa betez Estatu Kideak hartutako neurriak formulatu eta aplikatzeko orduan. Batzordea bereziki kezkatzen du salerosketaren biktima izan diren bidaidarik gabeko ume atzerritarren aurkako diskriminazio eza behar den bezala ez kontuan hartu izanak.
7. **Batzordeak gomendatzen du Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioko printzipio orokorrak, bereziki diskriminatuak ez izateko eskubidea, haurren salmentari, haurren prostituzioari eta pornografian haurrak erabiltzeari buruzko Aukerako Protokoloa xedapenak aplikatzera zuzendutako Estatu Kidearen neurri guztietan sartzea, jardun judizial edo administratiboak barne.**

II. DATUAK

8. Batzordeak kontuan izango du Estatu Kidearen asmoa, hau da, Aukerako Protokoloan jasotako arau-haustek dokumentatzeko datu-base zentrala ezartzeko asmoa. Hala ere, kezkatu egiten du haurren salerosketari, haurren prostituzioari eta pornografian haurrak erabiltzeari buruzko datuak adinaren, sexuaren, talde gutxiengodunaren eta jatorriaren arabera sailkatuta ez izateak.

9. Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak datu-base zentral bat jarri behar duela arau-haustek erregistratzeko eta Aukerako Protokoloak hartzen dituen esparruei buruzko datuak, beste faktore batzuen artean, adinaren, sexuaren talde gutxiengodunaren eta jatorriaren arabera sailkatuta, sistematikoki bildu eta aztertuko direla ziurtatzeko, ezinbesteko tresnak direlako politiken egikaritza ebaluatzeko.

III. APLIKAZIOKO NEURRI OROKORRAK

Aukerako Protokoloaren aplikazioaren koordinazioa eta ebaluazioa

10. Batzordeak begi onez hartu du Haurren Eskubideen Behatokia ezarri izana, haurren eskubideak errespetatzeko sektore arteko behatokia dena eta agintaritza nazionalak eta eskualdekoak eta gobernu kanpoko erakundeek (GKE) osatzen dutena, politikak koordinatzeko. Hala ere, administrazio zentralaren eta autonomia-erkidegoen arteko lankidetzak oraindik behar adinakoak ez dela adierazten du.

11. Batzordeak adre ematen dio Estatu Kideari Haurren Eskubideen Behatokiaren lanarekin jarraitzeko eta hura indartzeko eta administrazio zentralaren eta autonomia-erkidegoen arteko lankidetzak hobetzeko, autonomia-erkidego guztiek Aukerako Protokoloa zentzuz betetzen dutela bermatu ahal izateko.

Ekintza Plan Nazionala

12. Batzordeak begi onez hartu du sexu-ustiapen komertzialaren aurkako lehen Ekintza Plan Nazionala egitea eta ebaluatzea eta baita 2006-2009 aldirako bigarren Ekintza Plan Nazionala onartzea ere. Hala ere, kezkatu egiten du Planak Aukerako Protokoloaren esparru guztiak ez hartzeak, egikaritzeko behar dituen baliabideak ez izateak eta alderdi interesatuen artean berdintasunik gabe banatu izanak, esaterako, autonomia-erkidegoetako tokiko agintarien eta hurrekin eta haurrentzat lan egiten duten profesionalen artean.

13. Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak indartu egin behar duela haurren sexu-ustiapen komertzialaren aurkako bigarren Ekintza Plan Nazionalaren aplikazioa, Aukerako Protokoloaren esparru guztiak hartuta eta Protokoloa egikaritzeko nahikoa baliabide daudela eta planeko jardueretan eta horien ebaluazioan gizarte zibilaren eta haurren parte-hartze handia dagoela bermatuta. Halaber, Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak hobetu eta handitu egin behar dituela Plana interesatuen artean hedatzeko egiten dituen ahaleginak, batez ere autonomia-erkidegoetako tokiko agintarien artean eta hurrekin eta haurrentzat lan egiten duten profesionalen artean.

Hedapena eta trebakuntza

14. Batzordeak aitortenez ikusi du Estatu Kideak trebatzeko eta kontzientziatzeko jarduerak eta ekimenak egin dituela Aukerako Protokoloaren xedapenen inguruan GKEekin elkarlanean arituta, baina kezkatu egiten du haurren sexu-ustiapen komertzialaren gero eta eragin handiagoak prebentziorako kontzientziatze handiago baten eta profesionalen trebakuntza egokiago baten premia agerian uzteak.

15. Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak modu sistematikoan eta generoarekiko modu sentikorrean jarraitu eta indartu behar duela Aukerako Protokoloko xedapenen inguruko heziketa eta trebakuntza Protokoloan jasotako abusuen biktima diren hurrekin lan egiten duten profesional-talde guztien artean.

16. Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak honako hauek egin behar dituela:

- a) **Aukerako Protokoloaren xedapenak ezagutarazi, batik bat umeei eta umeen familia eta komunitateei, beste batzuen artean, irakaskuntza-programen bitartez eta epe luzeko sentsibilizazio-kanpainen bitartez;**
- b) **Protokoloko 9. artikuluko 2. paragrafoarekin bat, jendearen sentsibilizazioa sustatu, umeena barne, baliabide egoki guztien bidezko informazioaren bitartez eta Protokoloan aipatzen diren delituen prebentziozko neurriei eta ondorio kaltegarrii buruzko heziketaren eta trebakuntzaren bitartez, esaterako, komunitatea eta, bereziki, haurrak eta haur biktimak informazio-, heziketa- eta trebakuntza-programa horietan parte hartzera bultzatuta.**
- c) **Gizarte zibileko erakundeekin eta hedabideekin lankidetzan jarraitu, eta baita Protokoloak ardatz dituen kontuekin zerikusia duten kontzientziatze- eta trebatze-jarduerak babesten ere.**

Baliabideak esleitzea

17. Batzordea kezkatu egiten du haurren sexu-ustiapen komertzialaren aurka Ekintza Plan Nazionala egikaritzeko, biktimen laguntza juridiko eta fisikorako eta suspertze psikologikorako neurriak hartzeko behar adina baliabide esleitu ez izanak.

18. Batzordeak adone ematen dio Estatu Kideari Aukerako Protokoloan jasotako ekintzen koordinaziorako, prebentziorako, sustapenerako, babeserako, arretarako, ikerketarako eta zapalkuntzarako behar diren aurrekontuko diru-izendapenak bideratzeko ahaleginak areagotu ditzan, esaterako, bere xedapenen inguruko programak egikaritzeko giza eta finantza-baliabideak esleituz, bereziki haurren sexu-ustiapen komertzialaren aurkako Ekintza Plan Nazionala egikaritzeko. Halaber, Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak behar adina baliabide esleitu behar dizkiela agintari eskudunei, GKEen eta gizarte zibilaren bitartez, biktimen laguntza juridiko eta fisikorako eta suspertze psikologikorako.

**IV. HAURREN SALMENTAREN, HAURREN PROSTITUZIOAREN ETA
PORNOGRAFIAN HAURRAK ERABILTZEAREN PREBENTZIOA (9.
ARTIKULUA, 1. ETA 2. PARAGRAFOAK)**

Aukerako Protokoloan aipatutako delituak prebenitzeko hartutako neurriak

19. Batzordeak begi onez hartu ditu prebentzio-ekintzara bideratutako ekimenak, esaterako, Internet bidezko pornografian haurrak erabiltzea salatzeko neurriak hartzea. Bestalde, kexu azaldu da dokumentazioak eta ikerketak ez dutelako sakontzen hurren sexu-ustiapenaren funtsezko arazoietan, izaeran eta irismenean, haien prostituzioa eta pornografian erabiltzea barne.

20. Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak aurrekontuko baliabideak esleitu behar dituela UNICEFekin, LANE/IPECekin, GKEekin eta gizarte zibileko erakundeekin lankidetzan aplikatu beharreko prebentziozko neurrietarako. Halaber, Batzordeak adore ematen dio Estatu Kideari dokumentazio gehigarria biltzeko eta hurren sexu-ustiapen komertzialaren izaerari eta irismenari buruz generoarekiko sentiberagoak diren ikerketak egiteko, prostituzioa eta pornografian erabiltzea barne, eta arazoan oinarritako kausak, haien magnitudea eta prebentziorako neurriak zehazteko.

21. Batzordeak begi onez hartu ditu sexu-turismoa galarazteko Estatu Kideak egindako ekimen garrantzitsuak, besteak beste, bidaietan eta turismoan haurrak sexu-ustiapenaren aurka babesteari buruz Munduko Turismo Erakundeak prestatutako Jokabide Kodearen aitortpen ofiziala. Hala ere, Batzordeak uste du turismoaren industria eta, oro har, jende guztia gehiago kontzientziatu behar direla arazo horren inguruan.

22. Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak neurri berriak hartu behar dituela sexu-turismoa galarazteko, bereziki, turismoko agintari nazionalari xede horretarako funts gehigarriak esleituta. Estatu Kideak, bestalde, agintari eskudunen bitartez, turismoaren industriarekin, GKEekin eta gizarte zibileko erakundeekin duen lankidetzan indartu beharko luke turismo arduratsua sustatzeko, turismoaren industriako enplegatuen artean Jokabide Kodea zabaldua eta turistek berariaz zuzendutako kontzientziazte-kanpainak eginda.

23. Batzordea kezkatuta dago sexu-onespenerako adina hain baxua izateak, 13 urte, haurrak sexu-ustiapenarekiko ahulago bihurtuko dituela uste duelako.

24. Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak sexu-onespenerako adina igotzeko aukera aztertu behar duela, Aukerako Protokoloak jasotako delituen aurka babes handiagoa eskaintzeko.

**V. HAURREN SALMENTAREN, HAURREN PROSTITUZIOAREN ETA
PORNOGRAFIAN HAURRAK ERABILTZEAREN DEBEKUA ETA HORREKIN
ZERIKUSIA DUTEN ARAZOAK (3. ARTIKULUA, 4. ARTIKULUKO 2. ETA 3.
PARAGRAFOAK ETA 5. ETIK 7. ERA BITARTEKO ARTIKULUAK)**

Indarreko zigor-lege eta -araudiak

25. Batzordeak begi onez hartu ditu 2004ean Zigor Kodean egindako zuzenketak. Zuzenketa horiei esker, pornografian haurrak erabiltzeko debekuari buruzko xedapenak sartu ziren, material hori edukitzea barne. Batzordea kexu da oraindik ez direlako behar bezala jaso Zigor Kodean Protokoloko 3. artikuluko xedapen batzuk, batik bat haurren trafikoari eta salmentari buruzkoak, ez eta pornografian haurrak erabiltzearen definizioa ere. Batzordeak jaso du delegazioak emandako informazioa, hain zuzen ere, Parlamentua legea aldatzeko proiektu zabala aztertzen ari dela adierazten duena.

26. Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak arindu egin behar duela legea aldatzeko proiektuaren izapidea eta Zigor Kodea erabat doitu behar duela Aukerako Protokoloko 2. eta 3. artikuluetara, ordainsariari eta onespena lortzeko indukzio bidegabeari buruzko xedapenak barne (2. artikuluko a) idatz-zatia eta 3. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatiko ii) hitz-tartea). Halaber, Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak pertsonen salerosketa behar den bezala definitu eta zigortzeko behar diren neurriak hartu behar dituela, pertsonen salerosketa eta, bereziki, emakume eta haurrena prebenitu, zigortu eta zehatzeko Protokoloarekin, Delinkuentzia Transnazional Antolatuauren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa osatzen duenarekin bat datorrena. Azkenik, Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak aztertu egin behar duela Europako Kontseiluaren Gizakien salerosketaren aurkako Ekintzarako Hitzarmena (2005) eta Ziberdelinkuentziari buruzko Konbentzioa berresteko edo horiei atxikitzeko aukera.

Epaitzeak

27. Batzordeak kontuan hartu ditu pornografian haurrak erabiltzearen delituarekin zerikusia duten kasuak ikertzeko eta erantzuleak epaitzeko Estatu Kideak egindako ahaleginak, baina kezkatu egiten du haurren prostituzioa eta haurren salmenta ikertzeko behar adina baliabide ez jartzeak.

28. Espainian pornografian haur asko erabiltzen direla ikusita, Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak bikoiztu egin behar dituela delitu horiek ikertzeko eta delituen erantzuleak epaitzeko ahaleginak eta baliabide gehiago jarri behar dituela haurren prostituzioarekin eta salmentarekin zerikusia duten delituak detektatu eta ikertzeko.

Jurisdikzioa

29. Batzordeak begi onez hartu du Estatu Kideak egindako baieztapena, hau da, Aukerako Protokolotan jasotako delituak lurraldez kanpoko jurisdikzioari eta justizia unibertsalaren printzipioari lotuta daudela, eta bereziki, epaitzea ez dagoela delituaren erantzulea Espainiako izatearen edo Espainian bizitzearen baitan edo ekintza burututako estatuan delitu gisa tipifikatuta egotearen baitan. Hala ere, Batzordeak faltan bota du Estatu Kideak bere jurisdikzioa aplikatu dien kasuei buruzko informazioa.

30. Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak delituen gaineko bere jurisdikzioa eraginkorra izateko behar diren neurri praktiko guztiak hartu behar dituela, Aukerako Protokoloko 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Estradizioa

31. Batzordea kexu azaldu da estradizioa gauzatu ahal izateko ekintzak bi herrialdeetako legerietan delitutzat jo behar direlako.

32. Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak bermatu egin behar duela legeria nazionalean ez duela egon behar zigor-tipifikazio bikoitza atzerrian egindako delituen erantzuleak estraditatu eta epaitu ahal izateko.

VI. HAUR BIKTIMEN ESKUBIDEEN BABESA (8. ETA 9. ARTIKULUAK, 3. ETA 4. PARAGRAFOAK)

Aukerako Protokoloan debekatutako delituen haur biktimen eskubideak eta interesak babesteko hartutako neurriak

33. Batzordea kezkatu egiten du Aukerako Protokoloan jasotako zenbait delitu ez detektatzeak eta haien biktimak ez identifikatzeak. Kexu da haur biktimak birgizarteratzeko eta horien suspertze fisiko eta psikosozialerako diziplina arteko behar adina neurri ez dagoelako ere.

34. Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak honako hauek egin behar dituela:

- a) Aukerako Protokoloan jasotako edozein delituren haur biktimak eta lekukoak zigor-prozesuko etapa guztietan Aukerako Protokoloko 8. artikulua araberababestuak izango direla bermatzeko behar diren neurri guztiak hartu;**
- b) Agintari eskudunei behar adina finantza-baliabide eta giza baliabide esleitu haur biktimen abokatu-ordezkaritza hobetzeko;**
- c) Haurrek eskura izango duten doaneko telefono-linea zuzena jartzeko laguntza eman;**
- d) Aukerako Protokoloan jasotako delituen haur biktima guztiek prozedura egokiak eskura izatea bermatu, legezko pertsona arduradunen diskriminaziorik gabe, jasandako kalteen ordaina lor dezaten Aukerako Protokoloko 9. artikuluko 4. paragrafoarekin bat etorritz;**
- e) Aukerako Protokoloko 9. artikuluko 3. paragrafoaren arabera birgizarteratzea eta suspertze fisiko eta psikosoziala indartzeko baliabideak bermatu, bereziki haur biktimei diziplina arteko laguntza emanda;**
- f) Zalantzazko kasuetan, sexu-ustiapenaren biktima gazteenak haurrak direla uste izan, eta ez helduak;**
- g) Haurraren interes gorenak lehentasunezkoak izango direla eta haur bat aberriratzeko erabakiaren aurrean kontuan izango direla bermatu.**

35. Batzordeak begi onez hartu ditu jardun judizialean haur biktimen eskubideak babesteko Estatu Kideak egindako ahaleginak.

36. Batzordeak adore ematen dio Estatu Kideari haur biktimei eta delituen lekukoei buruzko gaitan justiziaren gaineko arauak kontuan hartzeko (Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren 2005/20 ebazpena) eta honako hauek egitera bultzatzen du bereziki:

- a) **Haur biktimen iritziak, premiak eta kezkak euren interes pertsonalei eragiten dieten prozeduretan aurkezteko eta aztertzeke aukera ematera;**
- b) **Haurren premiei aurre egiteko prozedurak erabiltzera, prozesu judizialean izan ditzaketen arazoetatik babesteko, batez ere hurrekin elkarrizketak areto berezietan eginda, galdeketa egiteko metodo bereziak aplikatuta eta elkarrizketa, adierazpen eta entzunaldi kopurua murriztuta.**

37. Azkenik, Batzordeak Estatu Kideari adore ematen dio honako hauek kontuan har ditzan: Batzordeak 2002ko azken oharpenetan jasotako gomendioak (CRC/C/15/Add.185, 46. paragr.), bere 6. Oharpen orokorra (2005), bereziki 50.etik 53.era bitarteko paragrafoak, bidaidetik gabeko edo familiaratik banandutako hurrei euren jatorriko herrialdetik kanpo ematen zaien tratuari buruzkoa, eta Emakumearen aurkako Diskriminazioa Ezabatzeke Batzordeak 2004ean egindako gomendioak (A/59/38, 377. paragr.).

VII. NAZIOARTEKO LAGUNTZA ETA LANKIDETZA

Nazioarteko laguntza

38. Batzordeak begi onez hartu du Aukerako Protokoloa hainbat herrialdetan aplikatzeari buruzko nazioarteko lankidetzaproiektuei Estatu Kideak emandako babes eta esparru horretan ahaleginak areagotzera bultzatzen du.

Legearen aplikazioa

39. Batzordeak ikusi du ez dela behar adina informazio eman delituren bat egindakoan zigorprozeduren etapa guztietan Estatu Kideak ematen duen laguntzari eta lankidetzari buruz, Aukerako Protokoloko 3. artikuluko 1. paragrafoan xedatuta dagoen bezala, hain zuzen ere, detektatu, ikertu, epaitu, zehatu eta estraditatzeko jardueretan.

40. Batzordeak adore ematen dio Estatu Kideari hurrengo txostenean gaiari buruzko informazio xehatuagoa eman dezan.

VIII. JARRAIPENA ETA HEDAPENA

Jarraipena

41. Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak behar diren neurri guztiak hartu behar dituela gomendio hauek zuzen aplikatuko direla bermatzeko, beste gauza batzuen artean, gobernuko ministerio eskudunei, Kongresuari eta autonomia-erkidegoetako saileko eta tokiko agintariei transmitituta, behar den bezala azter ditzaten eta behar diren neurriak har ditzaten.

Hedapena

42. Batzordeak gomendatzen du Estatu Kideak idatziz aurkeztutako txostena eta erantzunak eta horiekin zerikusia duten Batzordeak onartutako gomendioak (azken oharpenak) luze eta zabal ezagutzera emango zaizkiela Internet bidez jende arruntari, gizarte zibileko erakundeei, komunikabideei, gazte-elkarteei eta profesional-taldeei, Konbentzioari eta bere aplikazioari eta jarraipenari buruzko eztabaida eta sentsibilizazioa sortzeko helburuarekin. Halaber, Batzordeak Estatu Kideari gomendatzen dio luze eta zabal hedatzeko Aukerako Protokoloa haurren eta horien gurasoen artean, besteak beste, ikasketa-planen bitartez eta giza eskubideei buruzko heziketaren bitartez.

IX. HURRENGO TXOSTENA

43. 12. artikuluko 2. paragrafoaren arabera, Batzordeak Estatu Kideari eskatzen dio Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioko 44. artikuluan oinarrituta aurkezten duen hurrengo txostenean Aukerako Protokoloaren aplikazioari buruzko informazio gehiago sartzeko.
